

“Gurearen moduko enpresa batentzat LP ezinbestekoa dela uste dugu”

“Consideramos ineludible para una empresa como la nuestra favorecer la FCT”

# Luis Miguel Ruiz Delgado

Michelin (Lasarte) enpresako zuzendaria  
Director de la empresa Michelin (Lasarte)



Azken bi hamarkadetan, Lanbide Heziketako 700 bat ikaslek egin dituzte praktikak Michelin enpresak Lasarten duen lantokian. Luis Miguel Ruiz Delgado zuzendariak dioenez, LHko ikastetxeekin izan duten lankidetzaren balantzea “erabat positiboa” da.

**- Praktikak egiteko Lanbide Heziketako hainbat ikastetxerekin duen lankidetzari dagokionez, ibilbide luzea egin du Michelin. Zein balantze orokor egingo zenuke LP (Lantokietako Prestakuntza) esperientziari buruz?**

- Aurreneko lankidetzaren hitzarmenak 1985 urtekoak dira. Orduz geroztik gaur arte, gure lantokian 700 bat ikasle aritu dira. Lankidetzaren ibilbide luzea da, Michelin moduko enpresa batentzat ezinbestekotzat jotzen duguna, eta balantzea guztiz positiboa da. Gure langileekin harreman zuzena izatea nahiz erakundea eta horren funtzionamendua ezagutzea ahalbidetzen die gazteei geuk euren prestakuntzak parte hartzeak, eta horrela dute enpresa baten errealitateaz, bertako lan-baldintzez eta betebeharrak profesionalerantz jabetzeko aukera. Ikuspegi-truke interesgarria da, guztiok baliatu dezakeguna.

**- Oro har, zer iruditzen zaizue gazteen prestakuntza?**

- Prestakuntza akademikoa, zalantzarik gabe, primarioa da. Hezkuntzaren inguruko berrikuntzetara eta garapen teknologikora etengabe egokitzen direla antzematen da. Orokorrean, gazteen prestakuntza bat dator enpresen bilakaerarekin, eta lan-munduan sartzen direneko jauzia ez da oso handia izaten.

- Praktikak egiten dituzten LHko ikasleentzat, zein portzentaje bilakatzen da gero enpresako langile?

- Gure lantokian praktikak egiten dituzten pertsonen eta gero enpresan sartzen direnen artean ez dago proportzionaltasun definiturik. Kontuan izan behar da askoz ere handiagoa dela praktiketan hartzen ditugun ikasleen kopurua langile modura har ditzakegun pertsonen kopurua baino. Gure helburua nagusia enpresa eta gizarte inguruaren beharrei erantzutea da.

**- XXI. mendean, zer eskatzen diete Michelin moduko enpresek Lanbide Heziketako ikasleei? Prestakuntza tekniko soilaz gain, zein beste gaitasun iruditzen zaizkizue garrantzitsuak?**

- Giza baliabideen kudeaketa lehiakortasunerako faktore estrategikoetako bat da. Motibazio, lanaren inguruko interes eta garapen mailan, enpresak erantzun egokiak eman behar dizkie langileen itxaropenei eta, horrez gain, lehiakortasunaren eta balio erantsiaren sorreraren inguruko erronkei erantzun behar die. Erronka iraunkor horren arabera, pertsonen ezaugarri jakin batzuk izan behar dituzte: taldean

Alrededor de 700 alumnos y alumnas de Formación Profesional han realizado prácticas a lo largo de las dos últimas décadas en la fábrica de Michelin en Lasarte. Según Luis Miguel Ruiz Delgado, su director, la estrecha colaboración con los centros de F.P. “arroja un balance netamente positivo”.



“Praktiketako ikasleen prestakuntza akademikoa primerakoa da”

“La preparación académica de los alumnos en prácticas es impecable”

**- Michelin tiene una larga trayectoria de colaboración con diversos centros de Formación Profesional para la realización de prácticas. ¿Qué balance global hace de esta experiencia de FCT (Formación en Centros de Trabajo)?**

- Los primeros convenios de colaboración se iniciaron en el año 1985. Desde entonces hasta la actualidad han pasado por nuestro centro de trabajo del orden de 700 alumnos. Es una larga trayectoria de colaboración, que consideramos ineludible para una empresa como Michelin, con un balance netamente positivo. Contribuir a la formación de los jóvenes, incorporándolos a nuestra actividad laboral, tomando contacto directo con nuestros trabajadores, conociendo nuestra organización y funcionamiento, les permite percibir la realidad de una empresa, sus condiciones de trabajo y necesidades profesionales. Es un intercambio de puntos de vista interesante y aprovechable para todos.

**- En general, ¿cómo perciben la preparación de los jóvenes?**

- La preparación académica, sin duda, es impecable. Se aprecia una adaptación permanente a las innovaciones educativas y al desarrollo tecnológico. En general, su preparación está en línea con la evolución de las empresas y el salto que experimentan al incorporarse al mundo laboral no es muy acusado.

**- De esos estudiantes de F.P. en prácticas, ¿qué porcentaje llega a incorporarse posteriormente a la plantilla?**

- No existe una proporcionalidad definida entre las personas que asisten a las prácticas formativas en nuestro centro de trabajo y las que posteriormente se incorporan a nuestra empresa. Mantenemos el mismo nivel de prácticas independientemente de que estemos en una época de mayor o menor contratación. Hay que tener en cuenta que atendemos

“Lan-arriskuen prebentzioaren kultura irakastea hezkuntza sistemaren helburuetako bat izan behar da”

“Inculcar la cultura de prevención de riesgos laborales debe ser un objetivo del sistema educativo”

lan egiteko gaitasuna, zereginak burutzeko orduan autonomia eta erantzukizun maila handiagoa, geroz eta aberatsagoa eta dibertsifikatuagoa izan behar duen funtzio anitzeko garapena (fabrikazioa, kalitatea, mantentzea...). Garrantzi handia duen beste alderdi bat lan-arriskuen prebentzioaren eta lantoki-ingurumenaren zaintzaren aurrean sentibera izango den kultura sortzea da. Hezkuntza sistemaren helburuetako bat LHko zentroetan ere ideia horiek zabaltzea izan beharko litzateke. Ziur gaude ikastetxeetako arduradunak ari direla urratsak egiten bide horretan.

**- Zurearen moduko enpresa baten ikuspegitik, nolakoa da Euskadin Lanbide Heziketaren egoera orokorra? Zein dira, zure ustez, erronka nagusiak?**

- Euskadin, Lanbide Heziketa goranzko balioa da, nahiz eta beti izan duen esanahi berezia eta betekizun garrantzitsua industriaren zein zerbitzuen garapenean. Horren adierazle nagusia Lanbide Heziketan integratutako zentrozen sarea da. Horren hazkundea eta garapena laguntzen duten hainbat jardura suspertzen eta sustatzen dituzte administrazioek, eragile sozialek eta beste erakunde batzuek. Herralde

a un número muy superior de alumnos de los que seríamos capaces de absorber. Nuestro objetivo principal es colaborar con las necesidades de nuestro entorno social y empresarial.

**- ¿Qué demandan en este siglo XXI empresas como Michelin a los alumnos de Formación Profesional? Además de la preparación puramente técnica, ¿qué otro tipo de habilidades consideran importantes?**

- Un factor estratégico de competitividad es la gestión de los recursos humanos. La empresa debe dar respuestas adecuadas a las expectativas del personal en términos de motivación, interés en el trabajo y desarrollo, así como responder a los desafíos de competitividad y de creación de valor añadido. Este desafío permanente requiere que las personas reúnan una serie de características concretas, como son trabajar en equipo, con un mayor grado de autonomía y responsabilización de las tareas, con un desarrollo multifuncional (fabricación, calidad, mantenimiento,...) cada vez más diversificado y enriquecido. En definitiva, con las competencias y habilidades propias de las organizaciones responsabilizantes. Otro aspecto importante es la generación de una cultura sensible a la prevención de riesgos laborales y a preservar el medio ambiente en la empresa. Inculcar estas ideas desde los centros de F.P. debe ser un objetivo del sistema educativo. Nos consta que los responsables de los centros están dando pasos en este sentido.

**- Desde el punto de vista de una empresa como la suya, ¿cómo se percibe la situación general de la Formación Profesional en Euskadi? ¿Cuáles considera que son los principales retos pendientes?**

- La Formación Profesional en Euskadi es un valor en alza, aunque siempre ha tenido una significación especial y un papel relevante en el desarrollo industrial y de servicios. La red de centros integrados en la Formación Profesional es su máximo exponente. Instituciones, agentes sociales y otras instancias apoyan y promueven actuaciones favorecedoras de

“Giza baliabideen kudeaketa lehiakortasunerako faktore estrategikokoetako bat da”

“Un factor estratégico de competitividad es la gestión de los recursos humanos”

askotan ezarrita dagoen enpresa izateak ematen digun ikuspegitik, hori Euskadiren ezaugarri eta berezitasun bat dela esan dezakegu. Erronkei dago kienez, esango nuke nagusia lan-merkatuaren etengabeko aldaketa eta berregituratzei eta prestakuntzan eta ardurak hartzean oinarritutako eta gaitasun-kako kudeaketara bideratutako antolaketa-diseinu berriei erantzun erreaktiboa emateko gai izatea dela, baita teknologia berrien ezarpenei atxikitako eskakizunei erantzutea ere.

**- Azkenik, ba al da aipagarria iruditzen zaizun beste alderdiren bat Michelin-Lasarte eta Lanbide Heziketaren arteko harremanean?**

- Alderdi garrantzitsu bat erakunde bietako pertsonen arteko harremana da, LHko zentroetako eta enpresako pertsonen artekoa alegia. Gestio-hurbiltasuna eta hitzartutako jardueri ekiteko orduan sintonian jardutea erabakigarriak dira ikasleek emaitza onak lortzeko zein etengabeko hobekuntzaren ezarpenerako.

su crecimiento y desarrollo. Esto, con la visión que nos otorga ser una empresa implantada en múltiples países, podemos afirmar que es un hecho singular y característico de Euskadi. Como retos más sustanciales, destacaría el dar respuesta de manera reactiva a los cambios y reestructuraciones permanentes del mercado laboral, a los nuevos diseños organizativos basados en la formación, responsabilización y orientados a la gestión por competencias, así como a las exigencias en la aplicación de las nuevas tecnologías.

**- Por último, ¿hay algún otro aspecto de la relación entre Michelin-Lasarte y la Formación Profesional que le parezca interesante comentar?**

- Un aspecto importante es la relación existente entre las personas de ambas organizaciones, centros de F.P. y empresa. La cercanía en la gestión y la sintonía para acometer la actividad convenida es determinante, tanto en los buenos resultados obtenidos en los alumnos como en la aplicación de la mejora continua.

